

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Udal Aurrekontu Orokorra 2024. Hasierako onarpena**

Udalaren Osoko Bilkurak, 2023eko abenduaren 26an egin duen ohiko ekitaldian, hasierako onarpena eman die 2024ko ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorriari eta aurrekontua osatzen duen gainerako dokumentazioari.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeek aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15.1 artikulua xedatu duenak ondoreak izan ditzaizkien, jende guztiari jakinarazten zaio udal erakunde honen kontu-hartzailetza sailean espedientea hamabost egunez egongo dela jendaurrean azalduta; egun horietan, arestian aipatu den Foru Arau horren 17.1. artikulua ezarri duenez, legebideztaturik dauden interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, artikulua horretako 2. zenbakian zerrendaturik dauden zioengatik doi-doi, ondorengo tramite hauei lotuz:

- Azalpenerako eta erreklamazioak onartzeko epea: iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den biharamunetik zenbatu beharreko hamabost egun baliodun.
- Erreklamazioak aurkezteko organoa: Udaleko Erregistro Orokorra.
- Erreklamazioak egiten zaizkion organoa: Udalaren Osoko Bilkura.

Baldin eta, jendaurreko azalpenerako epea amaitutakoan, erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsizat joko da.

Derion, 2023eko abenduaren 27an. — Alkatea, Esther Apraiz Fernández de la Peña